

## SECCION AMENA.



## ZOR PAGATZALLE ON BAT.



Mediku batek zuan  
 Urteko asenta,  
 Pillipe *zordun*,<sup>1</sup> zazpi  
 Pezeta errenta.  
 Pagatzeko asmorik  
 Iñoiz artu gabe,  
 Irago ziran zazpi  
 Edo zortzi urte.  
 Mediku berri bat zan  
 Errira etorri,  
 Eta arekin ere zan  
 Liburuan jarri.

Jakindu zuanean  
 Beste medikuak,  
 Aserraturik artu  
 Zizkion karguak;  
 Esanaz:—mintza zaitez,  
 ¿Zér dezu notibo  
 Mediku berrirekin.  
 Asentatutzeko?  
 —¿Nai du jakin zergatik?  
 —Bai, gizona, esan.  
 —*Serbitzen nauelako*  
*Arek seipuzetan.*

OTAEGI-KO KLAUDIO-K.



## AMERIKARA.

Goazen Amerikara, goazen emendikan,  
 Lan gabe bizitzeko, aberasturikan;  
 Goazen itsasoetan, an da irabazten,  
 Dirua ere nork nai omendu egiten,  
 Lur ta arria berriz urre da biurtzen,  
 Zakuka nai duenak: libre juan ta artzen.  
 Baña... *zulua* omendu zakuak izaten.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

---

(1) Izengoitia.